

BiziBusa Hernaniko haurrak etxeetatik eskoletarako ibilbidea bizikletaz eta taldean egiteko aukera ematen duen proiektua da. 2015. urteko udaberrian sortu zen. BiziOn Jarduera Osasuntsuen Elkarteak sortu zuen eta hark kudeatzen du, Hernaniko ikastetxeen eta udalaren laguntzaz gauzatzen delarik.

Udazken eta udaberrian burutzen da, guztira urtean sei hilabetez.

Bi ibilbide egiten dira:

1. Florida auzotik.
2. Osiñaga, Martindegi eta Zikunagatik.

Eta oraingoaz, Langile eta Urumea ikastetxeetara iristen da.

8- 12 urteko hurrei zuzendua dago(gurasorik gabe). Hortik beherako haurrak, gurasoen laguntzarekin parte hartu dezakete. Haurrek laguntzaileak izaten dituzte ibilbidean zehar: BiziOneko bi partaide eta animatzen diren gurasoak. Gero, eskolan bizikletak lotzeko laguntza izaten dute.

Iraupenari dagokionez, 20-25 minutu inguru behar dira ibilbide osoa burutzeko.


Dohainik da. Bizikleta, kandatua, kaskoa eta aldatzeko arropa (ikastetxean aldezturik utzia)bestarik ez da behar parte hartzeko.

Parte hartzeko,izena ikastetxean bertan ematen da. Irakasleak 8-12 urteko haur guztiei banatzen dizkieten oharretan bakoitzak bere datuak apuntatu behar ditu. Irakasleak datuak bildu ondoren, BiziOneko partaideak arduratzen dira gainerakoaz.

Partaideen arteko komunikazio bideak:

- **e-mezua:** denboraldi hasieran bidaltzen zaie (jakin beharreko informazioa azaltzeko).
- **Taldeko whatsapp:** egunez eguneko gorabeherak partekatzeko (etorriko diren, eguraldiaren berri, argazkiak partekatzeko ...).
- **Telefono** deiak, beharrezkoa direnean.

Ordutegia, ibilbidea eta geldialdiak:



Ondorengo helburuak lantzeko aukera ematen du:

- Haurrak kirola egiten dute eta ohitura osasungarriak bultzatzen ditu.
- Herriko bide- gorri sarea erabiltzen eta ezagutarazten da.
- Ikastetxe guztietako haurrak elkarrekin egingo duten egitasmoa da.
- Hurrek autonomia lantzen dute.
- Auzoetan bizi diren herritarrei eskainitako laguntza da.
- Gurasoei egunero autoa hartu eta eskolara etorri behar izateko zama arintzen zaie.
- Kutsadura gutxitzen du.
- Herritarrentzat hezitzailea den praktika da.





